

# TESTUINGURUAREN AZTERKETA

LABen Nazio Biltzarra

2018ko urtarrilaren 3an<sup>1</sup>



[www.lab.eus](http://www.lab.eus)

9. Biltzar Nagusiak hartutako erabakiei segida emanez, LABen Nazio Biltzarrak urtean hirutan Testuinguruaren Azterketa osatuko du eta afiliazio osoari eta komunikabideei helaraziko zaie. Esku artean duzuen dokumentua bigarrena da eta aurrerantzean bezala, hiru bloketan banatuko da: Nazioartea, Testuinguru Ekonomiko eta Soziala eta Testuinguru politikoa.

<sup>1</sup> Testuinguruaren azterketa hau 2017ko abenduaren 20ko LABen Nazio Biltzarrean eztabaidatu eta 2018ko urtarrilaren 3an egiten da publiko. Bi data horien artean dauden gertakariekin, bereziko abenduaren 21eko Kataluniako hauteskundeen emaitzekin, eguneratu du Exekutiboak.

## AURKIBIDEA

Nazioarteko testuingurua .....	5
Testuinguru ekonomiko eta soziala .....	6
Frantziako estatuan, erreforma neoliberala	
Espainiako estatuan eta Hego Euskal Herrian, inboluzio soziala. Bizitzaren prekarizazioan sakontzen	
EAEko aurrekontuak eta zerga erreforma: PNV, PSE eta PPren hirukoa patronalaren alde	
Nafarroako aurrekontuak: Geroa Bai, aldaketa sozialerako galga	
Emakumeenganako bortizkeria agendan bai, baina egiturazko erantzunik gabe.	
Testuinguru politikoa .....	8
Frantziako estatua: Korsikan eta Ipar Euskal Herrian agenda propioa	
Espainiako estatua: inboluzio politikoa sakontzen	
Kataluniako prozesua: erreferendumaren arrakastaren ondotik, Estatuaren oldarraldia	
Euskal Herrian, erronka bikoitza: Inboluzio sozialari aurre egiteko, agenda sozial konpartitua; eta inboluzio autoritarioari aurre egiteko, herri erantzuna	
Preso eta iheslariak etxera ekartzeko borroka indartzen	



## NAZIOARTEKO TESTUINGURUA

---

Herri burujabetzaren aldeko indarren eta inperialismoaren arteko pultsoan atal berriak ezagutu ditugu azken hilabeteotan. Batetik, Venezuelako Gobernuak kinka larrian egotetik egoeraren nolabaiteko kontrola berreskuratzera igaro da. Ecuadorren, aldiz, Correaren eta haren oinordeko Lenin Morenoren arteko tira-birak sortu dira. Eta Hondurasen, Zelaia hautatutako presidentea kolpe "bigun" baten bidez bota ostean, neoliberalen kontrola bermatzeko putxerazoa ikusi dugu.

Beste parametro batzuetan bada ere, inperialismoaren agenda inposatzeko mugimenduak ikusi ditugu Ekialde Hurbilean; besteak beste, Saudi Arabiaren esku-hartzeak (Barheim, Yemen eta Siriaz gain, baita Qatar eta Libanon ere) eta Estatu Batuen enbaxadaren lekualdatzea Jerusalemera. Irakeko Kurdistango erreferenduma interes kontrajarrien gurutzaketaren adierazlea izan da. Autodeterminazio eskubidearen ariketa zilegia dena, bere boterea bermatzeko Irakeko elite kurdoaren operazio bilakatu da, Israel eta Saudi Arabiaren babesarekin.

Europari dagokionez, Brexitaren inguruko negoziazioak kokatu dira agendaren erdigunean. Kontinenteko eta Britania Handiko eliteak nor bere interesen defentsan ari dira, Irlanda nahiz Eskoziako subiranistek nazio burujabetzan aurrera egiteko aukera baliatzen saiatzen ari diren bitartean. Edozein kasutan ere, ez dago Europako Batasunaren egitasmoa herrien eta langileen ikuspegitik birpentsatzeko inolako zantzurik.

# TESTUINGURU EKONOMIKO ETA SOZIALA

---

## Frantziako estatuan, erreforma neoliberalak

Frantziako bipartidismo tradizionalaren krisiaren aurrean, eliteek Macronen hautagaitza sustatu zuten, ustezko berrikuntzaz mozorratutako erreforma neoliberalak aplikatzeko. Berehala ekin dio bere mandatuari, Espainiako estatuan PPK egindakoaren antzekoa den lan erreforma ezarrita. Hurrengo hilabeteetan murrizketa berriak aurreikusten dira, besteak beste langabezia prestazioan.

Frantziako sindikalismoa ez da gai izan lan erreformaren aurrean beste garai batzuetan izandako erantzun maila emateko. Ipar Euskal Herrian, LABek erreformaren kontrako borrokan aintzindari izatea lortu du, lan erreformaren kontra borroka egiteko ekintza sindikala martxan jarrita. Lan erreformaz baliatuta lan-baldintzak jaitsi nahi dituzten lantokietan "alarma soziala" piztu eta herri harresia eratzea da LABen ildoak.

## Espainiako estatuan eta Hego Euskal Herrian, inboluzio soziala. Bizitzaren prekarizazioan sakontzen

Espainiako estatuak inboluzio sozial ikusgarria ezarri du azken hamarkadan. Erreforma eta murrizketa sortari, 2011an konstituzioaren 135. artikulua erreformatu izana gehitu behar zaio. Zorraren ordainketa denaren gainetik jarri eta zorpetze muga ezarri da, aurrekontu bidez egin daitekeen inbertsio publikoari muga jarrita.

Marko horren muga hertsietan garatzen ari dira Hego Euskal Herriko politika publikoak. Batzuetan estatuaren inposaketaz, baina gehienetan EAJK ere bere egiten duen eredia da honakoa. Aipatzekoa da aurtengo udan PPren gobernuak, EAJ eta Ciudadanosen babesa izan duela, proposatu duen zorpetze muga onartzeko.

Barne Produktu Gordina hazten ari dela goraipatzen dute instituzioek, baina lan eta bizi-baldintzen prekarizazioan sakontzen ari da. Datorren urterako ere, bai Jaurlaritzak eta baita CONFEBASK patronalak ere aurrikuspen onak egin dituzte, ekonomia hazi eta langabezia murriztu egingo omen da.

Langabezia tasen murrizketaz ezkutatu nahi dute lan harremanetan izaten ari den prekarizazioa. Inposaturiko lanaldi partzialen gorakadak ez du etenik, kontratuen iraupenak oso motza izaten jarraitzen du, egiten diren kontratuen gehiengoa behin behinekkoa da (lau langiletik batek behin behineko kontratua du). Espainiar estatuak eta Poloniak besterik ez dute Hego Euskal Herriak baino behin behinekotasun tasa altuagoa.

Enplegu berririk apenas sortzen da eta 2008an krisialdian sartu aurretik zegoen enplegu kopurua berreskuratzetik urrun gaude oraindik, 137.000 lanpostu gutxiago daude. Lan harremanen prekarizazioak ez du aldamenean, ez politika publiko ez babes sozial sistema egokirik eta ez du izango aurrerantzean ere aurkeztu dituzten aurrekontuekin.

Aurreko astean, Madrilgo Gobernuak, CCOO eta UGTren laguntza paregabea izan zuen eta Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata eguneratzeko akordioa egin zuten. Guztiz ez nahikoa den igoera adostu zuten. Europako Karta Sozialaren irizpideak erreferentzia moduan hartuta, 1.200 €ko soldata argia aldarrikatzen eta defendatzen jarraituko dugu.

Bizi dugun egoeraren aurrean mobilizazioa indartzea beharrezkoa da eta kurtso honetarako helburu nagusien artean kokatu genuen patronalarekin konfrontazioan sakotzea. Helburu horretan aurrera goaz eta konfliktibitate maila igotzen ari da federazio guztietan.

## **EAEko aurrekontuak eta zerga erreforma: PNV, PSE eta PPren hirukoa patronalaren alde**

EAJren Gobernuak aurrekontu proiektu neoliberal eta antisoziala aurkeztu du. Aurrekontu horiek aurrera ateratzeko hasieratik argi izan dute noren babesa bilatu nahi zuten, PSE eta PPrena.

Aurtengo aurrekontuen negoziaketa testuinguru politikoak markatua egon bada ere, erabakitzeko eskubidea defendatzen duela esaten duen alderdiak, erabakitzeko eskubidea 155. artikularen bidetik ukatzen dutenekin akordioak egiteko inolako arazorik ez du izan.

EAJ-PSE-PP blokeak adostu duen zerga erreforma ere kokatu behar dugu aurrekontuen negoziazioaren testuinguruan. PP eta CONFEBASKek lortu dute eskatzen zutena. Patronalak presionatzen jarraituko du zerga gutxiago ordaintzeko, hazkunde garaian lehiakorragoak izateko dela esango digute eta atzeraldi garaian enpresak erakartzeko. Jarraitu egingo du, bere estrategia babesten duen klase politikoa dagoen bitartean.

## **Nafarroako aurrekontuak: Geroa Bai, aldaketa sozialerako galga**

Nafarroako Gobernu berriarekin nabarmen aurreratu da demokratizazioan. Azken urratsa, UPNk ezabatu zuen irakasleen zerrenda bakarra berreskuratzea izan da, irakasle euskaldunen diskriminazioari amaiera emateko. Erregimenak, PSNren iniziatibaz, erabaki hori bertan behera uzteko ekimena abian jarri du, eta Ezkerrak babesa adierazi dio. Honen ondoren, abenduaren 16an, milaka herritarrek erantzuna eman zioten Iruñeako kaleetan zehar.

Hizkuntza eskubideei dagokionez Ezkerrak oztupoak jarri baditu, politika sozial eta ekonomikoari dagokionean Geroa Bai izaten ari da aldaketa sozialerako galga. Aldaketaren gobernuak izan dituen bi muga nagusiak, burujabetzarik eza eta Geroa Bairen politika ekonomiko eta sozialak izan dira. Bi muga horiei eusten dieten aurrekontuak aurkeztu ditu gobernuak. 135. artikulua ezartzen dituen mugapenak onartzen ditu: zorraren ordainketa da lehentasuna eta politika publikoetara bideratzen den dirua ez da nahikoa. Urtez urte gastu soziala apur bat igotzen bada ere, ez dago jauzi nabarmenik aurreko gobernuarekiko.

## **Emakumeenganako bortizkeria agendan bai, baina egiturazko erantzunik gabe**

Udan bezala, udazkenean ere emakumeen kontrako bortizkeria agenda politiko eta sozialean egon da. Honen inguruko kontzientzia eta herri erantzunean asko aurreratu da, azaroaren 25aren inguruko ekimenek erakutsi duten bezala. Alabaina, oraindik orain indar handia dauka biktimak estigmatizatu edota erruduntzat jotzeko joera ideologikoak, sanferminetako epaiketan ikusi ahal izan dugun bezala. Gainera, ez dago arazo larri honi konponbidea emateko behar bezalako plangintza instituzionalik.

# TESTUINGURU POLITIKOA

---

## Frantziako estatua: Korsikan eta Ipar Euskal Herrian agenda propioa

Azken urteotako elementu positiboenetako bat hauxe izan da: estatuko agendaz gain, lurralde agenda propioa indarra hartzen ari da Korsikan eta Ipar Euskal Herrian. Korsikaren kasuan, autonomista eta independentisten arteko koalizioak gehiengo ikusgarriaz irabazi ditu uharte osoa biltzen duen Elkargoko hauteskundeak. Ipar Euskal Herrian, berriz, lurralde elkargo jaio berria garatzen hasi da eta gatazkaren konponbidearen arloan protagonismo handia hartu du.

Hala ere, urrats baikor hauek ezin dute ezkutatu abertzaleok daukagun erronka: Ipar Euskal Herriko lurralde osoa hartzen duen lehen instituzioa lortu ondotik, politika publiko propioak egin ahal izateko eta, bide hori bururaino eramanda, erabakitzeko eskubideari atea irekitzeko borroka fase berria irekitzea. Ildo horretan, lan harremanetarako eta garapen sozioekonomikorako esparru propioa osatzea lehentasunezkoa izango da LABentzat.

## Espainiako estatua: inboluzio politikoan sakontzen

Bide baketsu eta demokratikoetatik proiektu politiko guztiak defendagarriak direla entzun izan dugu behin eta berriz. Kataluniako autodeterminazio prozesuaren kontra Estatuak sustaturiko oldarraldiak erakutsi du gezur handia zela. Espainiako estatuak ez du erabakitzeko eskubidea onartzen, ezta errespetatzen ere. Horretan bat dator bipartidismoa ordezkatu duen PP, PSOE eta Ciudadanosen osatzen duten erregimenaren hiruko berria.

78ko erregimenak porrot egin du lurralde ereduaren auzia ixteko bere helburuan. Ez du arazoa konpontzeko eskaintza politikorik, sortutako krisiak indarraren bidez itxi nahi izan ditu. Eta ildo horretan, Estatuak erakutsi du badituela bitartekoak 78ko erregimena indarraren bidez defendatzeko eta baduela determinazioa bitarteko horiek erabiltzeko.

155. artikulua aplikazioaz, demokraziari estatu kolpea eman eta salbuespen egoera ezarri da Katalunian. Baina horren ondorioak ez dira mugatzen Kataluniara: inboluzio politikoaren ezartzen ari da Estatu osoan. Birzentralizatorako joerak soka luzea dauka: LOAPA, EAE eta Nafarroako estatutua garatzeko oztopoak, 135. artikulua, gastuaren sabaia, funtzio publikoan ezarritako mugak...

Lurralde-antolaketari dagokionez hiru hipotesiren inguruko eztabaida egon da azken urteotan. Lehena, estatuaren nolabaiteko birfundazio demokratikoa, erabat gertakaitza iruditzen zaigu. Estatuarekin akordio bidez erabakitzeko eskubidea gauzatzeko tarterik ez dago. Ez dago berdinetik berdinerako harremanik, ez dago erabakitzeko eskubidean oinarritutako alde biko akordioetarako aukerarik.

Bigarren hipotesiak, egungo autonomia ereduaren eguneratzea, indarra galdu du azken hilabeteotan, baina epe ertainari begira ate hau zabal liteke. Edozein kasutan ere, hipotesi honetan, nazioen menpekotasun egoerak jarraituko luke. Gaur egun indarrean dagoen marko juridiko politikoari arnas berria ematea litzateke, Estatuaren unean uneko borondatearen menpe leudeken eskumen berri batzuen truke.

Hirugarren aukera, inboluzio autoritarioan urrats berriak egin eta birzentralizazioan sakontzea, azken hilabeteotan indartu da. Aukera hau nagusituko balitz, gaur egungo marko juridiko eta politikoaren jomugan jarriko litzateke, autonomia estatutua edo amajoramendua bera zalantzan jarri eta atzera urratsak eginda.



Gauzak horrela, etorkizuna kezagarria da Hego Euskal Herriarentzat. Menpekotasun egoera iraunarazi edota areagotzea da Estatuaren eskaintza. Alternatiba bakarra dago: herri moduan burujabetza eskuratzeko estrategia abian jartzea.

## **Kataluniako prozesua: erreferendumaren arrakastaren ondotik, Estatuaren oldarraldia**

Urriaren 1eko erreferendumaren arrakastaren ondotik, Estatuak kontraerasora jo du: Goberna espetxeratu eta erbesteratzea, Generalitatearen kontrola hartu eta salbuespen egoeran egin diren hauteskundeak inposatu.

Abenduaren 21eko hauteskundeetan burujabetzaren aldekoak atera dira garaile. Unionismoak ez du bere helburua lortu, ez du burujabetzaren aldeko gehiengoa zapuztu. Hauteskunde hauetan 155. artikulua aldekoren estrategiak porrot egin du, Ciudadanosen emaitza onek estali ez duten porrota.

Urriaren 1eko aginduari segida eman eta burujabetza prozesuan ze nolako urratsak egingo diren zehazteke badago ere, Estatuaren aldetik lehengo lepotik burua. Horren adierazleak dira Felipe VI.ak eguberritako hitzaldian esandakoak: hauteskundeetan soberanistek irabazi eta 155. artikulukoek porrot egin izan ez balute moduan hitz egin du, berriro ere ukazioa eta mehatxuaren bidetik.

Orain arte, European, oldarraldi errepresibo honekiko kritikak azaldu badira ere, estatu-logika nagusitu da. Ikusteke dago datozen hilabeteetako gerakarien harira ze nolako jarrera hartuko duten. Europako Batasuna, berez, ez da Herrien askapen prozesu zalea, eta bere proiektua krisian egoteak ezkorrago egiten du edozein aldatetaren aurrean. Espainiako estatua apurtzeak izango lituzkeen ondorio ekonomikoek posizio politiko hauetan izan dezakeen eraginak azterketa lasaiagoa merezi du.

## **Euskal Herrian, erronka bikoitza: Inboluzio sozialari aurre egiteko, agenda sozial konpartitua; eta inboluzio autoritarioari aurre egiteko, herri erantzuna**

Katalunian gertatuko denak zuzen eragiten digu eta ikasgaiak atera behar ditugu. Baina hemen, Euskal Herrian, datozen hilabete eta urteetan egingo duguna izango da burujabetza prozesuan aurrera egiteko gakoa. Euskal Herrian asko borrokatu dugu 78ko erregimena pitzatzeko eta orain burujabetza prozesua martxan jartzea da askapen prozesuan aurrera jarraitzeko egin beharreko urratsa.

LABen iritziz, erronka bikoitza dugu Euskal Herrian datozen hilabeteetan. Alde batetik, inboluzio autoritario eta zentralistari erantzun ahalik eta zabalena eman. Bizi dugun inboluzio antidemokratikoak herri moduan erantzutea eskatzen du. Demokrazia eta erabakitze eskubidearen aldeko jarrera argia eskatzen du. 155. artikulua aplikazioaren ondotik, errealitate honi erantzuteko gune-dinamika bat sortzeko saiakera egin da. Nafarroan aurrera egin du, ez ordea EAEn.

EH Bildu, Gure Esku Dago eta gehiengo sindikalak azaroaren 4an Bilbon deituriko mobilizazioan EAJk parte ez hartzea erabaki izana esanguratsua izan da. Aitzitik, ez du inolako arazorik izan erabakitze eskubidea ukatzen dutenekin akordioak egiteko. Non dauden adierazten duen erabakia izan zen. EAJk ez du Estatuarekin konfrontazio demokratikoaren

bidetik burujabetza prozesuan inplikatzeko inolako prestasunik. Edozein kasutan ere, LABetik jarraitu egingo dugu erantzun ahalik eta zabalenak lortzeko saiakerarekin, EAJk bide hori mugatu nahi duen arren.

Bigarren erronka, ezkerretik burujabetza prozesua sustatzean datza. Horretarako, erabaki berriak hartu eta aliantzak eraikitzen hasteko unea da. Ezker soberanistaren esparruan agenda sozial konpartitua beharko litzateke eremu politiko, sindikal eta sozialaren artean.

Agenda sozial horretan bildu beharko lirateke, batetik, egungo marko politikoan egiten diren politika publikoak aldatzeko ardatzak; eta bestetik, marko politiko berri baterako gutxieneko eduki sozialak. Agenda sozial konpartitu honek balio beharko luke, EAEn, EAJ-PSOE-PPren bloke neoliberalari aurre egiteko eta, Nafarroan, aldaketa prozesua egonkortu eta ezkerreara jo dezan.

## **Preso eta iheslariak etxera ekartzeko borroka indartzen**

Preso eta iheslarien etxeratze bidean nabarmentzekoa da Parisen, Bakegileek deituta, abenduaren 9an izandako manifestaldi jendetsua, 11.000 lagun izan ziren bertan. Hurrengo hitzordu garrantzitsua Bilbon urtarrilaren 13an izango dela gogoratu behar dugu. EAJren papera berriro ere bada aipatzekoa. Estatu frantsesean egiten ari diren bideari eta Pariseko manifestaldiari garrantzia kendu nahi izan dio.

Ipar Euskal Herrian adostasun zabalak eraiki dira esparru politikoan eta jendarte zibilaren inplikazioa ere eredugarria da. Honek Frantziako Gobernuarekin interlokuzio bat irekitzea posible egin du eta mugimenduak ikusten hasi gara, oraindik apalegiak badira ere. Frantziako Gobernuaren jarreran aldaketa ematea lortuko balitz, Espainiako Gobernuaren gaineko presioa areagotuko litzateke.

Espainiako Gobernuak euskal presoekiko salbuespen eta mendeku politikan ez du aurrera urrats bakar bat ere eman. Horren adierazlerik nagusia preso gaixoen egoera da. Euskal Herrian adostasun zabala lortu da gaixotasun larriak dituzten presoak askatzea eskatzeko. Hainbat ekimenen artean aipatzekoa iruditzen zaigu Foro Sozialaren eskutik, EAEn uztailaren 5ean egin zen adierazpen sindikal eta agerraldia; horren hurrengo urratsa izan da, lehen aldiz gehiengo sindikalarekin batera UGT ere agertu izana Ibon Iparragirre askatzeko mobilizazio batean. Nafarroan, aldiz, agerraldi bateratua ez da posible izan baina, nor bere oharraren bidez, sindikatu guztiok bat egin dugu eskakizun horrekin.

Aurrera begira, gaixo diren presoekin lortutako adostasun bera lortzen saiatuko gara presoan Euskal Herriratzeari eta bestelako salbuespen neurrien ezabaketari dagokionez, preso eta iheslari guztiak etxeratzeko bidean.